



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 10a

34 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzkoa. Osoko zuzenketa (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurri buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izangaien zerrenda eta merezimenduen baremoan eskuratutako puntuazioa (9. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izendapena (9. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2002ko otsailean egindako bilerak (10. or.).

—2002ko otsailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzkoa

OSOKO ZUZENKETA

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2002ko martxoaren 4ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
FORU PARLAMENTARI ANDREAK
AURKEZTUA

2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen proiektuak ontzat jotzen du 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana, eta, aurrekontua luza-tuzenez, aurrekontu arloko neurri osagarriak proposatu ditu. Plan hau 1998ko irailaren 18an onetsi eta iragan abenduaren 31n bukatu zenaren jarraipena da. Plan hark ondoko helburuak zituen:

- a) Langabezia-tasa % 5era jaistea.
- b) Enpleguaren kolokatasun-tasa Europako batez bestekora jaistea.
- c) Lanbide prestakuntza erabat ezartzea.
- d) Laneratzea.
- e) Enpresa txiki eta ertainen garapen ekonomikoa.

Oraindik ez da jendaurrean egin plan haren balantzerik, ikusteko zenbateraino bete diren

aurreikusitako helburuak eta jakiteko zer aldaketa egin beharko litzatekeen.

Hasierako planteamendu baztertzalea erakusten dute bai plan hark bai 2002-2004rako aurreikusitakoak ere. Eztabaidatik kanpo utzi dira sindikatuen ordezkartzaren ehuneko adierazgarri bat eta kolokako enpleguaren, bazterkeriaren, emakumeentzako aukera berdintasunaren defentsaren, inmigrazioaren nahiz ANELen elkartzen diren lan sozietate anonimo edo kooperatiben eremuan lanean diharduten gizarte mugimenduak. Horrek garbi erakusten du borondate gutxi dagoela inor integratzeko, eta berekin dakar hutsuneak izatea aipatu gizarte sektoreek jorratzen dituzten alderdietan.

Ondokoak dira, nahiz eta gaur pixka bat aldatu diren, enplegu plan berriaren abiaburuak:

- a) Nafarroan % 6,8koa da langabezia –emakumeena % 11,11koa da, eta gazteena % 14,93koa–.
- b) Kolokatasun-tasa % 25,88koa da –emakumeena % 31,31koa da–, eta EBkoa, berriz, % 13,5ekoa.

Lehen irakurketa batek pentsaraz lezake alde handia dagoela helburu haien eta errealitatearen artean, bai, baina ezin dugu ahaztu langabeziari buruzko datuak Estatukoak baino nabarmen hobeak direla –hiru bat puntu–, eta EBkoak baino hobeak –puntu bat baino gehiago–.

Horrenbestez, gaurko eztabaida izan beharko litzateke ea datu horietako zer ehuneko zor zaion enplegu planari edo azken urteotan ekonomiak Nafarroan izan duen igoera ikusgarriari –ia ehuneko laukoa–, beti Estatuan izandakoaren gainetik. Ez da orain azterketa hori egiteko unea, baina egin egin beharko da, zeren hemendik gutxira oso bestelako egoera izanen baitugu, eta errealitate horren datuen joera aldatu egin baitaiteke.

2002-2002rako Enplegu Planari buruz, lehen-go eta behin esan beharra dago haren zenbatekoa % 45 igo dela. Planaren helburu nagusiak ondokoak dira:

a) 2004an langabezia-tasa % 4koa izatea –gizonezkoena % 3koa eta emakumezkoena % 5,8koa–. Horretarako, 14.000 lanpostu sortu behar dira, horietako 1.500 Nafarroan erroldatutako gizonezkoentzat, 7.000 Nafarroan erroldatutako emakumezkoentzat, eta 5.500 kanpoko pertsonentzat.

b) Aldi baterako kontratazioa EBko batez bestekora hurbiltzeraino jaitea –egungo % 25,8tik % 13,5eraino–.

c) Lan istripuen kopurua murriztea, batez ere sektorerik kritikoenetan. Ez da datu zehatzik ematen.

d) Lanerako prestakuntza eta orientazioa hobetzea.

e) Tokiko enplegu planei babesa ematea 10.000 biztanletik gorako udaletan.

f) Energia berriztagarrietako prestakuntza zentro nazionala sortzea.

g) Gizarte etxebizitzarako laguntza berariazkoa.

h) Lan denbora gutxitu eta berrantolatzea.

Hauexek dira diru gehien hartzen duten kontusailak:

– Kontratazio arloko egonkortasunerako laguntzak (kenkari fiskalak eta inbertsiorako laguntzak). Alegia, enpresaburuentzako laguntzak: 34.346 milioi. Planaren ia % 50. Aurreko planarekin alderatuta ia % 100 igo da, 17.808 milioikoa baitzen.

– Bigarrena, diru aldetik, prestakuntzarena da, guztira –lanerakoa, jarraia, funtzio publikoa eta enplegurakoa– 10.358 milioi hartzen baititu.

– Hurrengoa, 7.312 milioikoa, enpresa txiki eta ertainei laguntza ematekoa da.

– Horien atzetik dator, 7.122 milioirekin, enplegua sustatzekoa –praktiketako enplegua 1.245 milioi, emakumeen enplegua 707, eta talde kalte-tuena 5.169–.

– Udal mailako jardueretarako 2.960 milioi dago.

– Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2.526 milioi hartzen ditu, hau da, lehen-go 600 milioien halako lau.

– Arriskuei aurrea hartzeak 1.317 hartzen ditu, lan arriskuen arloko ordezkarien figura sortzearen.

– Azkenak autonomoak –1.286 milioi–, gizarte-ekonomia –923 milioi– eta laneratzea –776 milioi–.

Une honetan zalantza nahiko dago hazkunde ekonomikoaren, kontsumoaren eta garapen teknologikoaren joerei buruz.

Enpleguari buruz hainbat analistak erabilitako aldagai batzuk oker zeudela esateko moduan gaude, lanaren bukaerari buruzko aurreikuspen guztiak alegia –horren defendatzaile nagusia Jeremy Rifkin izan zen–. Lanaldia murriztu eta lana banatzeari buruz ditugun proposamenak eta desirak, lortu nahi genituen babes sindikal eta politikoen azpi-azpitik geratu ez ezik ia ezabatuta gelditu dira enpresa-politiken eraginez; izan ere, orain dela urte batzuk hori pentsaezina bazen ere, politika horiek langile asko eta askoren lan nahiz bizi baldintzek okerrera egitea eragin dute, batez ere lan merkatu deritzanera lehen aldiz heltzen direnen baldintzek, hain zuzen ere.

Orain dela urte batzuetako enplegu planaren bandera sindikala enplegu betearen bandera bihurtu beharko genuke, hots, eskubide bete enplegua, sexuen, belaunaldien nahiz nazio-nortasunen arteko berdintasun bete, baldintza duin bete, talde-borrokarekiko konfiantza bete enplegua, etorkizun solidarioago eta gizatiarrago bat izateko esperantzan.

Ezertarako ere ez dute balio enpleguari buruzko ehunekoek, baldin eta egunero-egunero ikusten badugu gure inguruan zer-nolako enpleguak sortzen diren, zer-nolako baloreak sustatzen diren eta zer gutxi balio duten zenbaki batzuek enpleguaren errealitatea deskribatzerakoan.

Mugimendu sindikala kate estuan lotuta daukate iraganak eta haren oinarri sozialak, zeina kezkatuago baitago, logikoa den bezala, eraso desregulatzaitetik ahal duena kontserbatzeaz, erronka berrien aurrean klabe berriak eskaintzeaz bainoago.

Enplegu planaren eta haren helburu, lorpen, lehen-tasun eta gabezien eztabaidak bide eman beharko luke hain beharrezkoa dugun hausnarke-ta egiteko. Aukera paregabea dugu orain, aintzat hartzen badugu iraganetik ikasitakoa, egunez egun ikusten ari garena eta etorkizunari buruz senak esaten diguna.

Eduardo Galeanok dio lan arloko eskubideak ordaindu nahi dizutenaren truke eta ezarri nahi

dizkizuten baldintzetan lan egiteko eskubidea izatera murrizten ari direla.

Enplegu beteko langile amerikarra lan egiteko bizi da, zeren, haren enplegua hain kolokakoa eta hain gaizki ordaindua da non ez dion uzten duintasunez bizitzeko lan egiten. Bi enplegu edo gehiago izan behar dira aurrera egiteko. Sarritan gertatzen dira enpresa aldaketak. Antolatu gabe, eskubiderik gabe, berak bakarrik borrokatu behar du ingurune lehiakor batean aurrera egiteko. Hori da ekonomia magnitude handiek ezkututzen duten langilea. Hori da gugan aurkitu nahi duten langilea.

Lisboako azken goi-bileran, 80ko urteetan bazter utzitako helburu zaharra berreskuratu zuten Europako agintari nagusiek: 2010. urterako lortu nahi duten enplegu betearekiko konpromisoa. Zer dela eta berreskuratu dute orain sozialdemokraziarekin lotu ohi den eta erreforma neoliberalako urteetan baztertu den helburua? Erantzuna agerikoa da: Europan aipatzen hasi den enplegu bete ez da 50 edo 60ko urteetako enplegu bete hura: estatubatuarren enplegu bete da, azpi-enplegu bete.

Enplegu plan hau abian jartzeko ezinbestekoa da ahalik eta lankidetzara osoena lortzea sindikatu eta gizarte mailan. Helburua aurreko planaren balantze moduko bat egitea eta dirua zertan era-

bili den eta enpleguarengan zer eragin izan duen asmatzea litzateke.

Halaber, beharrezkoa da plan berria balortzea eta ongi aztertzea, haren lehentasunak, meritua eta gabeziak ezagutzeko, eta hori guztia enpleguaren eta gizarte bazterkeriaren munduan lan egiten duten gizarte mugimenduekin batera egin behar da. Hori egiten ez bada, ezin dugu ontzat jo ez enplegu plana ez plana finantzatzeko neurri osagarri buruzko lege proiektua ere.

Lanaldia murriztu eta enplegua sortzeari buruzko eskaera garrantzitsu batzuk asmo oneko hitzen bidez baino ez dira jaso, baina ez dago ez inolako planik ez horiek aurrera ateratzeko borondatearik ere.

Ona litzateke horri buruz eztabaidatzea Nafarroako Parlamentuan, gizartean ere eztabaida eragiteko. Bitartean, ezin da ontzat eman eztabaidatu ez den eta inolako neurririk ez dakarren plan bat, hori eginez gero plana onartzea izanen litzatekeelako.

Hori dela-eta, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarri buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa hau aurkeztu dugu, eta plana Nafarroako Parlamentuan eztabaidatu eta bozkatzeko eskatzen dugu, gaiarekin zerikusia duten gizarte sektoreak aintzat hartuta.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzekoa".

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko 6. artikulua bitartez testu berria ezarri zaio Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko hamabosgarren xedapen gehigarriari –estatutu horren testu bateratua abuztuaren 30eko 251/1993 legegintzako foru dekretuaren bitartez onetsi zen–, eta Nafarroako administrazio publikoen menpeko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak osatzen dituzten funtzionarioentzat lanpostuz igotzeko berariazko sistema bat taxutu da.

Hain zuzen ere, maiatzaren 24ko 10/2001 foru legeak indarra hartu zuenetik, Nafarroako admi-

nistrazio publikoetako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko langileentzat honako lanbide-kategoria hauek ezarri dira: suhiltzailea (C maila), suhiltzaile-kabua (C maila), suhiltzaile sarjentua (B maila), suhiltzaile-ofizialordea (B maila) eta suhiltzaile-ofiziala (A maila).

Lanbide-karrera horren oinarri dira, batetik, maila beraren barruan kategoriaz igotzeko lehiaketa-prozedurak, eta, bestetik, goragoko mailara igotzeko oposizio-lehiaketa, titulazioa daukatenentzat nahiz halakorik ez daukatenentzat. Horrela, ofizialordeen postu hutsak betetzeko Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaile-sarjentuen artean kategoriaz igotzeko lehiaketa egingen da.

Alabaina, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko IV. kapituluak beste kolektibo batzuetarako ezartzen duenez bestela, foru lege horrek indarra hartu zuenean suhiltzaile-sarjentu lanpostuetan jadanik ziharduten Nafarroako administrazioetako zerbitzuko langileak ez dira birsailkatuak izan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak ezarritako B mailan, eta, ondorioz, C mailakoak izaten segitzen dute. Hori dela-eta, aipaturiko foru legeak indarra hartu ondoren sarjentu lanpostura igotzen diren kabuek beste inork ezin izanen du parte hartu ofizialorde kategoriara igotzeko lehiaketan.

Beraz, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeari buruz Parlamentuan egin zen eztabaidan legegileak adierazi zuen borondatearen aurka, foru lege honek indarra hartu zuenean suhiltzaile-sarjentu zirenak, B mailarako birsailkapenetik kanpo utziak izateaz gain (gogoan izan zein izan den jokabidea polizia-sarjentuekin), taxuturiko igoera-sisteman parte hartu ezinik geratuko dira, zeren eta, ofizialorde-lanpostu hutsak betetzeko kategorialdaren lehiaketa barne-igoera izanik, C mailan dauden

sarjentuek inoiz ezin izanen baitute parte hartu: Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko 18. artikulua aginduz, funtzionarioak maila beraren barnean bakarrik igo ahalko dira kategoriaz.

Halaber, kategoria berriak mailaz maila arautzen direnez, ofizialorde lanpostuak B mailan sartzen dira, eta A mailan suhiltzaile-ofizial lanpostuak, kontuan izan gabe gaur egungo ofizialak, zeinak B mailan baitaude, zein egoeratan dauden.

Hori guztia dela-eta, maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea onestean izan den borondatearekin koherentzia izatearren, premiazkoa da Nafarroako administrazio publikoen menpeko Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetako langileentzat taxuturiko lanbide-karrerari birsailkapen berrien ondorioz gertatzen diren egoera iragankorrak egokitzea, suhiltzaileekin eta suhiltzaile-kabuekin egin den bezalaxe.

Bestalde, euren lanpostuko ardurak zein diren ikusita, bidezko da agintarientzako gidariak C mailan sartzea.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu zaindari nagusi eta mendi zaindari lanpostuak B mailan jartzea, haien eginkizun eta erantzukizunei begirata, bai eta lanpostu horiek betetzeko araubideari buruzko zenbait alderdi arautzea ere.

Eta Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeko 12. artikulua aldatzen duen uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legeak nahi gabe eragindako ondorio batzuk zuzentzearen, aipatu artikulua beste modu batera idatziko da. Helburua da, segurtasun juridiko handiagoa lortzeko, albienteen polizia-eginkizunak zehaztea eta horiei betetzen uztea bestelako administrazio eginkizunak, uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legea onetsi aitzin betetzen zituztenak hain zuzen ere.

Lehen artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legeko ondoko artikulua jarraian adierazten den bezala aldatuko dira:

Bat. 6. artikuluko 7. idatz-zatiari bigarren lerrokada bat gehitzea. Lerrokada horrek honako testu hau izanen du:

“Hala ere, foru lege honek indarra hartzean Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan B mailako ofizial gisa izendatuta dauden langileek kategoria horri eutsiko diote, iraugitzeko bidean dagoen egoera pertsonal gisa. Funtzionario horiek A mailako suhiltzaile-ofizial lanpostuak betetzeko deituriko oposizio-lehiaketetako deialdietan parte hartu ahalko dute, ofizialordeekin batera, goi mai-

lako titulazioa izatearen baldintza bete behar izan gabe, baldin eta Nafarroako edozein administrazio publikotan ofizial gisa egiaz zerbitzuak ematen gutxienez bost urte eman dituztela frogatzen badute.”

Bi. 18. artikuluari idatz-zati berri bat, lehena izanen dena, gehitzen zaio, eta oraingo testua bigarren idatz-zatia izanen da. Hona testua:

“1. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan suhiltzaile-sarjentu lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako B mailari atxikiko zaizkio.”

Hiru. Artikulu berri bat gehitzea, 18 bis zenbakiarekin. Hona testua:

“18 bis artikulua. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan agintarientzako gidari nahiz korporazioko gidari lanpostuan lan kontratu finko-arekin diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako C mailari atxikiko zaizkio.”

Lau. Artikulu berri bat gehitzea, 19 bis zenbakiarekin. Hona testua:

“19 bis artikulua. 1. Foru lege honek indarra hartzean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan zaindari nagusi nahiz mendi zaindari lanpostuan diharduten langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako B mailari atxikiko zaizkio.

2. Ingurumenzainen eta mendi zaindariodeen lanpostu hutsak funtzio publikoan sartzeko oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez beteko dira.

Zaindari nagusien eta mendi zaindarien lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira ingurumenzainen eta mendi zaindariodeen artean, hurrenez hurren. Mailaz igotzeko lehiaketan parte hartu ahal izateko nahitaezko baldintza izanen da ingurumenzain edo mendi zaindario de lanpostuan bost urteko zerbitzua eman dutela kreditatzea.

Ingurumenzain nagusi koordinatzaile lanpostu hutsa mailaz igotzeko lehiaketa bidez beteko da, ingurumenzain nagusien artean, baldin eta ingurumenzain nagusi lanpostuan hiru urteko zerbitzua eman dutela kreditatzen badute.

3. Mendi zaindariak eta mendi zaindario deak edo ingurumenzain edo ingurumen zaindari nagu-

siak 55 urte betetakoan destino hauetako bat aukeratu ahal izanen dute:

a) Jardunean jarraitzea, orokorrean erretiro adinera heldu arte. Horretarako, osasun azterketa bat gainditu beharko du urtero.

b) Bere mailari dagozkion zerbitzuak ematea administrazio- edo kudeaketa-lanetan, eskualde berdinetan eta bere lanpostuaren lansari osagarriak mantenduz.

Bigarren artikulua. Uztailaren 5eko 19/2001 Foru Legeak Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeko 12. artikuluari emandako testua aldatzea. Hona testu berria:

12. artikulua. 1. Udaltzaingorik ez duten toki entitateek guardia, zaindari, agente, albiente eta gisakoak izan ahalko dituzte, artikulua honetako 3. idatz-zatian ezarritako eginkizunak betetzeko. Langile horiei "albiente" izen generikoa emanen zaie Nafarroako Foru Komunitatean.

2. Albienteak, armak eraman ala ez, agintearen agentetzat hartuko dira euren eginkizunak betetzean, eta agente izate hori agiri bidez kreditatu beharko dute.

3. Albienteek, berezko dituzten eginkizunak gain, ondokoak bete ahalko dituzte:

a) Udalaren zerbitzu, instalazio eta egoitzak jagon eta zaintzea.

b) Hiriguneko trafikoa antolatzea, zirkulazio arauekin bat.

c) Babes zibileko eta herritarrei laguntza emateko zereginetan parte hartzea, legeek xedatuarekin bat.

d) Erregelamendu, ordenantza, bando, ebazpen eta udalaren gainontzeko xedapen eta egintzak betetzen direla zaintzea.

4. Albienteak foru lege honetan espresuki aplikatzekoa zaienari eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua erregulatzen duten arauetan xedatuari lotuko zaizkie. Hautatu eta sartzeko prozeduran Nafarroako Segurtasun Eskolak emandako prestakuntza ikastaro berariazkoa gainditu beharko da, bestela ezin izanen baitute izendapena jaso.

5. Udaltzaingoa eratzeko beharrezkoak diren baldintzak bete arren, euren plantillan zaindari, agente, albiente, gauzain edo gisako lanpostuak dituzten toki entitateek udaltzain izateko hautapro-

bak egin ahalko dituzte, behin bakarrik, funtzionario horiei mugaturik, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte:

a) Deialdia egin aitzin toki entitateak Udaltzaingoa sortzea.

b) 30.2 artikuluan aipatzen den prestakuntza ikastaroa egin beharra ezarriko du deialdiak, ondoko kasuetan: izangaiek ikastaroa egin ez badute eta ikastaroa gainditu izan arren –zein lanpostutatik igo diren, harexetan sartzeko– ikastaroa egin zenetik hiru urte baino gehiago igaro badira.

Deialdi horren ondorioz ezinezkoa bada Udaltzaingoa sortzeko erregelamenduak eskatzen duen behar adina udaltzain izendatzea, toki entitateak urtebeteko epean egin beharko du, gehienez ere, hutsik geratu diren lanpostuak betetzeko deialdia.

Xedapen iragankor bakarra

Nafarroako Gobernuak, urtebeteko epean gehienez ere, foru lege honek indarra hartzen duenean B mailako suhiltzaile-ofizial izendapena eduki eta egiaz emandako zerbitzuetan bost urteko antzinasuna duten Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioentzako murriztutako oposizioa deituko du. Oposizio hori –NAPIk emandako prestakuntza ikastaroa sartuko da– gaindituz gero, funtzionario horiek A mailako suhiltzaile-ofizial gisa sailkatuta geratuko dira, eta B mailan zituzten lanpostuak kenduko dira. Oposizioa gainditzeko ez badute, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko hamabosgarren xedapen gehigarriak arautzen duen egoeran geldituko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernua baimentzen da foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Izangaien zerrenda eta merezimenduen baremoan eskuratutako puntuazioa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, bestek beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia bukatu da (Mahaiko erabakia 01-06-04, 2001eko ekainaren 22ko 69. NPAO). Epaimahaiak bidalitako izangaien zerrenda ikusita, eskuratutako puntuazioaren arabera sailkatuta, hona ERABAKIA:

1. Izangaien zerrenda horren jakitun dagoela adieraztea:

Miguel Esparza Oroz jauna 31,64 puntu

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an egindako bilkuran, bestek beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdiko (Mahaiko Erabakia 01-06-04, 2001eko ekainaren 22ko 69. NPAO) epaimahaiak bidalitako izangaien zerrenda ikusita, eta 7.2. oinarriak xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoak ziren Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu hutsetariko bat Miguel Esparza Oroz jaunari esleitzea.

2. Legelari Kidegoko funtzionario izendatzea ondoko izangaia. Izen-abizenak: Esparza Oroz, Miguel.

3. Interesdunak hamar egun naturaleko epea izanen duela, erabaki hau jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko eta erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko otsailean egindako bilerak

MAHAIA

13an.

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

11, 18 eta 25ean.

OSOKO BILKURA

14an:

– Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait arau aldatzen dituen foru lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituena, zuzenean eta irakurketa bakarrean bidera dadin onestea, egoki iritziz gero.

– b) Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketak finantzatzeko bi kreditu berezi, 2.400.000 eta 1.800.000 eurotakoak, hurrenez hurren, ematen dituena, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko foru lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, aintzat hartzea, egoki iritziz gero.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko foru lege proposamena, alargun pentsioentzako laguntza bereziei buruzko Foru Legea aldatzekoa, aintzat hartzea, egoki iritziz gero.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko foru lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko, aintzat hartzea, egoki iritziz gero.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko jabeldura, euskararen normalizaziorako lanen

barrenean halako inkesta soziolinguistiko bat egiteko deialdiaren egokitasunari buruzkoa.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa, zeinak Nafarroako Gobernua premia-tzen baitu ordenagailuak erosteko laguntzak progresibitate-irizpideen arabekoak izan daitezen, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa, zeinak Nafarroako Gobernua premia-tzen baitu laneko jazarpen morala eragozteko neurriak har ditzan, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko mozioa, zeinak Nafarroako Gobernua premia-tzen baitu udalen erabakiak oztopa ez ditzan, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galdera, Zaraitzun zenbait herritako euskarazko izenak adierazten zituzten erro-tuluak kendu izanari buruzkoa.

– Espainiako ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa egiteko lankidetzeta-hitzarmena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artekoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

21ean:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamena basa fauna eta haren habitata-
tak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzekoa da.

– Rubio Salvatierra andreak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamena Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa da.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru

Lege proposamenak ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko gai batzuk arautzen ditu.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamena Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa da.

– Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamena Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 5.1 artikulua aldatzekoa da.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko jabeldura, liburutegi publikoen eredu berrirako plan estrategikoa, 1999an eginikoa, betetzeari buruzkoa.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko jabeldura, "San Francisco" ikastetxeak teresataren eraikin berriaren egiaz hartu ahal izanaren duen ikasle kopuruari buruzkoa.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, entsegu kliniko bat egiteko eskatzen da, heroinazaleen mantentze tratamenduan heroinaren eraginkortasuna ikusteko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da administrazioa erreformatzeko plan bat egin dezan.

– Maiatzaren 7ko 2/2002 Foru Dekretua eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen da.

28an:

– Nekazaritza azpiegiturei buruzko Foru Lege proposamena dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamenak lurzatiei edo lurzatiei darduen eraikinen salerosketa edo trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskura-

tzeko eskubideaz baliatzeari begira eskualdeak mugatzen ditu.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamenak toki esparruko herri kontsultak arautzen ditu.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamenak Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzen du.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkezturiko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Foru Lege proposamenak helduen hezkuntza arautzen du.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu Etxebizitza kontseilariaren jarrera gaitzesten du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Espainiako Gobernu premiatzen da Ondasun higiezin eta garraioaren sektoreak liberatzeko presazko neurriei buruzko 4/2000 Errege Lege Dekretua indargabetu dezan.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da argiteria instalazio eta aparatuek arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan.

– Otsailaren 11ko 37/2002 Foru Dekretua eztabaidatu eta bozkatzea; dekretu horrek Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen du.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

5ean:

– Lan bilera. Bertan Itoizko urtegiak kaltetutako herritarren plataforma agertuko da eta, obretako segurtasun eza dela-eta, gizartean dagoen kezka-ri buruz informatuko du.

– Lan bilera. Bertan Itoizko Koordinakundea agertuko da eta, obretako segurtasun eza dela-eta, gizartean dagoen kezka-ri buruz informatuko du.

12an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, irrati-emisiorako lizentziak emateari buruz Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren betetzearen berri emateko.

— Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, informazioa emateko Iruña-Logroño autobiaren Villatuertatik Errioxarainoko zatiarekin zerikusia daukaten aurreikuspen, aurreproiektuen egoera, proiektu eta lan-mota guztiei buruz.

— Galdera, Radio Universidad eta Net 21 irrati euskarazko programazioaren jarraipenari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

TOKI ADMINISTRAZIO BATZORDEA

5ean:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea bete dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

6an:

– Lan bilera. Bertan AZL kolektiboa (NUPeko irakasleak eta beste batzuk), NUPen hizkuntza normalizaziorako plan demokratiko bat lehenbailehen onetsi beharraz arituko da.

– Lan bilera. Bertan Gazteluko Plazaren aldeko Plataformak, lurrazpiko aparkalekuko obreen berri emango du.

7an:

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da teresatarren ikastetxe zen eraikineko obrak ez egitera Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta Nafarroako Kontseiluaren iritzia jakin arte.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala has ditzan Burlatan beste ikastetxe publiko bat eraikitze behar diren tramiteak, Ermitaberri ikastetxean egun jasan behar diren pilaketa arazoei konponbidea emateko.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan.

8an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, informazioa eman dezan NUPen euskararen inguruan egin behar den legeari buruz.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, informazioa eman dezan Nafarroako Gobernuak Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaz duen iritzari buruz.

8an:

– Lan bilera Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialean. Bertan Eskola Kontseiluak toki ezaz informatuko du.

19an:

– Lan bilera. Bertan Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, bere helburuen eta Nafarroan hizkuntzei buruzko azterlan bat egiteari buruz daukan iritzia berri emanen du.

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Liburuzainen Elkarteak eta Nafarroako Liburutegi Publikoetako Liburuzainen Kolektiboak liburutegi publikoen modernizazio-prozesuari buruz informatuko dute.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

6an:

– Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, informazioa eman dezan Iruña-Lizarran-Logroño autobiaren proiektuarentzako aholkularitza ekonomiko eta finantzieroa kontratatzeke deialdiari buruz.

– Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, informazioa eman dezan gasolinaren gaineko zerga berriak Nafarroan izanzen duen eraginari buruz.

15ean:

– Lan bilera. Bertan Zerga Ogasuneko Langile Batzordeak telefono bidez tributu-gaiei buruz erantzuteko zerbitzuaren egoeraren berri emanen du.

– Lan bilera. Bertan Audenasako Enpresa Batzordeak lan-gatazkei eta Estatuaren jabetza-

koa den zatiaren balizko pribatizazioaren berri emanen du.

19an:

– Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, informazioa eman dezan Arrese fundazioari emandako dirulaguntzak kontrolatzeko espedienterik egin ez izanari buruz.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Aude-nasarekin behar diren kudeaketak egin ditzan, A-15 autobideko erabiltzaile txartelak berritzea.

19 eta 22an:

– Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen zenbait arau aldatzen dituen Foru Lege proiektua eta aurkeztu zaizkion zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu neurri batzuk hartzeko Foru lege proiektua eta aurkeztu zaizkion zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

26an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia izanen da, Hitzarmen Ekonomikoaren gaurkotze eta berritzeari buruzko negoziazioei buruz informatzeko.

GIZARTE GAJETAKO BATZORDEA

7an:

– Lan bilera. Bertan Elkarkide, S.L. lanbide tailerren zuzendaritzaren ordekaritza batek dituzten arazoei buruz informatuko du.

– Lan bilera. Bertan CCOO eta UGT sindikatuek jubilatu eta pentsiodunen bizi-kalitatea hobetzeko egiten dituzten proposamenei buruz eta Plan Gerontologikoaren betetzeari buruz informatuko dute.

– Lan bilera. Bertan Axola Elkartearen Gizarte babeserako sistema publikoaren defentsaz arituko da.

12an:

– Lan bilera. Bertan, jarraian adierazten diren adituek eta kolektiboek agerraldia egiten dute, emakumei tratu txarrak ematea eragozteko lege bat prestatzeari buruz informatzeko:

• M^a José Varela Portela andrea, abokatu, genero-politikan aditua.

• Llanos Moreno Ballesteros andrea, Gaztela-Mantxako Emakumeen gaitako zuzendari nagusia.

• Milagros Urzainqui andrea, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Oinarrizko Laguntza-aren eta Gizarteratzearen zuzendariordea, eta

• Teresa Zabalegui Reclusa andrea, indarkeria sexistaren aurkako emakumeen plataformakoa.

19an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren agerraldia, Plan Gerontologikoaren ezarpenari buruz informatzeko.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

12an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Suhiltzaileen Partzuergoko langileen batzordeak, Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Plan Zuzentzailea betetze mailaren berri emanen du.

– Lan bilera. Bertan SITNA (Nafarroako Lurralde Informazioko Sistema) proiektua koordinatzeko batzordeak, webgunea eta 2002rako Jarduketa Plana aurkeztuko du.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LAN ISTRIPUAK AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

13an:

– Nafarroako Foru Komunitateko lan istripuak aztertzeko batzorde bereziko kideek Senatuko Lan Arriskuen Prebentziorako Batzorde Bereziarekin lan-bilera. Bilera horren xedea da gure Komunitatean arlo horretan egiten ari diren ekin-tzen berri edukitzea.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI BATZORDEA

13an:

– Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektua eta horri aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernuaren premiaz da Nafarroako ardoa eza-gutarazi eta merkaturatzeko kanpaina bat prestatzeko dezan.

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEA**

15an:

– Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, “Nafarroako Lurralde Estrategia” lehiaketaren edukiaren berri emateko.

OSASUN BATZORDEA

22an:

– Osasun kontseilariaren eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Meisal fundazioaren eraketari buruzko azalpenak emateko.

26an:

– Nafarroako Foru Komunitatearen fondoek kargu zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

**INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA
ETA TURISMO BATZORDEA**

22an:

– Industria, Merkataritza, Turismo, Teknologia eta Lan kontseilariaren agerraldia, Eledunen

Batzarrak eskatuta, Centros Tecnológicos de Navarra (CETENASA) sozietate publikoari buruz informatzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait laguntza-neurri har ditzan hurrengoak helburu hartuta: “autoenplegua”, denda txikiak, enpresa txikiak eta “ekonomia soziala”.

22an:

– Lan bilera. Bertan Unión General de Trabajadores sindikatuko ordezkari batzuek agerraldia eginen dute, lanaren egonkortasuna eta segurtasuna erdiesteko herri-ekimen legegile baten abiarazpena azaltzeko.

27an:

– Lan bilera. Bertan Liebherr-eko enpresa-batzordeko ordezkari batzuek agerraldia eginen dute, duten lan gatazkari buruzko informazioa emateko.

27 eta 28an:

– Foru Lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko xedez jarduera ekonomikoen edo aukeren Sarrigurengo eremua besterentzeko prozesua arautzen duena, eta horri aurkezturiko zuzenketa, eztabaidatu eta bozkatzea.

2002ko otsailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Foru Dekretua, BEZari buruzko 19/92 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Gobernuak igorri du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Batasuna Parlamentuko Taldeak langatzaiei eta Audenasan Estatuaren jabetzakoa den zatiaren balizko pribatizazioari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Agoizko eskualderako lurralde-lehengoratzeko proiekturik egoteari buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez eskatzen du lan-bilera bat egin dadila Ekonomia kontseilariarekin, Hitzarmen Ekonomikoa gaurkotu eta berritzeko negoziazioen edukari buruz informatzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez eskatzen du Hezkuntza eta Kultura kontseilariak eta Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusiak agerraldia egin dezatela, Oteiza Fundazioak 2002ko urtarrilaren 31n eginiko bilerari buruz informatzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez eskatzen du Jorge Oteiza Museoa Fundazioko kideekin lan-bilera bat egin dadila, fundazio horren gaur egungo egoeraren berri eman dezaten.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, eskubide osoa daukala bere selekzio nazionalaren bitartez Euskal Pilotaren Munduko Txapelketan parte hartzeko.

– Nafarroako Kontseiluaren txostena, gasolinaren gaineko zerga berria Nafarroako zerga-esparruan txertatzeko moduari buruzkoa.

– Xarelanek aurkezturiko idazkia. Horrekin batera, itzulpenetan laguntzeko zerbitzu baten lehiaketarako informazio osagarria.

4an:

– Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Nafarroako Foru Komunitatean orde-

nagailuak erosi eta Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak arautzekoa.

– Batasuna Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Lehendakariaren agerraldia eskatzen du, Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioan Nafarroako ordezkariak defendatutako dituen ikuspegiari buruz informaziorik ezan.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galdera, banku-gordailuen baldintzei buruzkoa.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galdera, Nafarroak Estatuko Aurrekontu Orokoretara eginiko ekarpenen erabilerrari buruzkoa.

– Itoizko Koordinakundearen idazkia. Horren bidez, urtegiaren egoera aztertzeko lan-bilerara ez dela joanen jakinarazten du.

– Fotokopiagailuak erosteko lehiaketarako proposamenak, Ricoh España, S.A.k aurkeztuak.

5ean:

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia, ordenagailuak erosteko dirulaguntzak arautzeko Foru Lege proposamenaren testuan antzemandako okerra zuzentzekoa.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Hezkuntza kontseilariaren agerraldia eskatzen du, nazioko Gobernuak prestatzen ari den "Irakaskuntzaren kalitateari buruzko legea" deritzonak Nafarroako hezkuntza-sisteman izanen dituen ondorioei buruz informaziorik ezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Ekonomia kontseilariaren agerraldia eskatzen du, Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko asmoz Estatuko ordezkariarekin egiten ari diren negoziazioen egoera ezagutzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bidez, Gizarte Ongizate kontseilariak agerraldia egiteko eskaria erretira dadila eskatzen du. Agerraldiaren xedea zen pertsona ezgaien fundazioa sortzeari buruzko informazioa ematea.

– Reinischen idazkia. Horrekin batera, itzulpenetan laguntzeko zerbitzu baten lehiaketarako informazio osagarria.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkezturiko osoko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko arau batzuk aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztu dio.

